| 16 zaldi fiskal bitartekoak | - De menos de 16 c.f. | 46,45 € | 2,63 |
| 16 – 25 zaldi f. bitartekoak | - de 16 a 25 c.f. | 73,05 € | 2,63 |
| 25 zaldi fiskaletik gorakoak | - de más de 25 c.f. | 219,10 € | 2,63 |
| E) TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ATOI ETA ERDI-ATOIAK | E)REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHICULOS DE TRACCION MECÁNICA | | |
| 750-1000kg.bitarteko karga erabilgarria | - de menos de 1000 y más de 750 Kg. carga útil | 46,45 € | 2,63 |
| 1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. | - de 1000 a 2.999 kgs.carga útil | 73,05 € | 2,63 |
| 2.999 kg.tik gorako karga e. | - de más de 2.999 kgs. " " | 219,10 € | 2,63 |
| F)GAINERAKO IBILGAILUAK | F) OTROS VEHICULOS | | |
| Ziklomotoreak | - Ciclomotores | 11,85 € | 2,63 |
| Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak | - Motocicletas hasta 125 c.c. | 11,85 € | 2,63 |
| Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartekoak | - Motoc.de más de 125 hasta 250 c.c. | 20,30 € | 2,63 |
| Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartekoak | - Motoc.de más de 250hasta 500 c.c. | 42,95 € | 2,78 |
| Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartekoak | - Motoc.de más de 500hasta 1000 c.c. | 85,90 € | 2,78 |
| Motozikletak 1.000 cctik gora | - Motoc.de más de 1.000 c.c. | 171,80 € | 2,78 |

Ordenantza honetako aldaketak, 2024ko urriaren 31ko Osoko Bilkuran onartu ziren eta 2025eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Las modificaciones de esta Ordenanza se aprobaron en el Pleno del 31 de octubre de 2024 y entrará en vigor el día 1 de enero de 2025.

Tolosan, 2024ko abenduaren 31n

ALKATEA KONTU-HARTZAILEA IDAZKARIA

## 1.4. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

### I. XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua**

Udal honek eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta galdatzen du, Ordenantza hau dela bide, Lurralde Historikoko Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan eta zerga horri dagokion uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Tarifen eranskina Ordenantza honen atal bat da.

**2. artikulua**

Ordenantza udalerri osoan aplikatzen da.

### II. ZERGA EGITATEA

**3. artikulua**

Zerga egitatea ondorengoa da: Tolosa barruan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteagatik, horretarako obra edo hirigintza lizentzia jasotzea exijitzen denean, lizentzia hori jaso edo ez, edo erantzukizunezko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharra dagoenean, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea Tolosako Udalari badagokio.

**4. artikulua**

Hurrengo kasu hauek zerga honi dagozkion zerga egitateak dira:

1. Eraikuntza obrak edo solairu berriko instalazioak

2.- Edozein eraikuntza edo instalazio handitzeko obrak.

3.- Edozein eraikuntza edo instalazioren egitura uki dezakeen aldaketa edo erreforma obra.

4. Edozein eraikuntza edo instalazioren kanpoko itxuraren aldaketa obra.

5. Eraikuntzen barneko antolamendua aldatzen duten obrak, haien erabilera kontuan hartu gabe

6. Behin behineko izaerarekin egin behar diren obrak, Lurzoruaren Legeko testu bateratuko 58. Artikuluko 2. atalak aipatzen dituenak.

7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

## 1.4. ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

### I. DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1**

Este Ayuntamiento de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral 15/1989, de 5 de Julio, particular del tributo establece y exige el Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

**Artículo 2**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

### II. HECHO IMPONIBLE

**Artículo 3**

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa, siempre que la expedición de la licencia o la actividad de control corresponda al Ayuntamiento de Tolosa.

**Artículo 4**

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto, los siguientes:

1. Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.

2. Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.

3. Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

4. Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

5. Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

6. Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el apartado 2 del art. 58 del texto refundido de la Ley del Suelo.

7. Las obras de instalación de servicios públicos.

8. Lur erauzketak, lauketak, indusketa eta lurreztatze erako lur mugimenduak, salbuespen hauekin: onartutako edo baimendutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu bat gauzatzeko obrak.

9. Eraikuntzak botatzea, hurre-hurreko aurri deklarazioetan izan ezik.

10. Lurrazpiko instalazioak, besteak beste erabilera hauek dituztenak: aparkalekuak, industri, merkataritza edo lanbide jarduerak, zerbitzu publikoak edo lur azpiari ematen zaion beste edozein erabilera.

11. Bide publikotik ikusteko moduan jartzen diren propaganda kartelak.

12. Gaitasun ekonomikoa erakusten duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten eta, era berean, obra edo hirigintzako baimena beharrezko duten obra, eraikuntza edo instalazioak.

8. Los movimientos de tierra, tales como desmontes, explanaciones, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.

9. La demolición de las construcciones, salvo en las declaraciones de ruina inminente.

10. Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11. La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

12. Cualesquiera obras, construcciones o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanística.

## III. ZERGARI EZ LOTUA

### 5. artikulua

Jabari-titularitatea Udalarena duten higiezinetan egin daitezkeen eraikuntza, obra edo instalazioak ez dira egongo zerga honi lotuta, obraren jabea Udala bera denean, nahiz eta obrak zuzenean egin edo organismo autonomoen edo bertako partaidetza osoko izaera duten entitateen bitartez.

## III. NO SUJECIÓN

### Artículo 5

No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de persona propietaria de la obra, bien directamente bien a través de organismos autónomos municipales o bien mediante entidades íntegramente participadas por el mismo.

## IV. SALBUESPENAK

### 6. artikulua

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita daude, Estatua, Komunitate Autonomo, Lurralde Historiko edo Entitate Lokalaren jabetzako eraikuntza, instalazio edo obrak, zerga dagokienak, helburu hauek dituztenean: errepideak, trenbideak, portuak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako saneamendua eta herrietako hondakin uren saneamendua, nahiz eta gestioa organismo autonomoen eskuetan egon, inbertsio berriko obrak izan nahiz kontserbaziokoak.

## IV. EXENCIÓN

### Artículo 6

Se exime del pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Estado o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.

## V. SUBJEKTU PASIBOAK

### 7. artikulua

1.Zerga honen subjektu pasiboak, zergadunak, hurrengo hauek dira: Zerga sistemaren Foru Arauko 35.3. artikuluak aipatzen dituen pertsona fisiko, juridiko eta entitateak, horiek eraikuntza, instalazio edo

## V. SUJETOS PASIVOS

### Artículo 7

1.º Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas, personas jurídicas o entidades del artículo 35.3 de la Norma Foral General Tributaria, que sean dueños/as de la

obraren jabeak direnean, nahiz eta ez izan eraikuntza, instalazio edo obra hartu duen higiezinaren jabeak.

2. Aurreko paragrafoan finkatutakoaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabetzat joko da eraikuntza, instalazio edo obraren gastuak ordaindu dituena.

**8. artikulua**

1. Baldin eta eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasiboak, zergadunak, egin ez badu, subjektu pasibo ordezkotzat joko dira, lizentziak eskatu dituztenak, erantzukizunezko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntza, instalazioa edo obrak egin dituztenak.

2. Ordezko horrek zergadunari eskatu ahal izango dio berak ordaindutako zerga tipoaren zenbatekoa.

## VI. ZERGA OINARRIA

**9. artikulua**

1. Zergaren zerga oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da, eta benetako kostutzat hartuko da, zergaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazioa edo obra gauzatzeko egiten dena.

Ez dira zerga oinarritzat hartuko balio erantsiaren gaineko zerga eta erregimen berezietako antzeko zergak, tasak, prezio publikoak eta izaera publikoa duten tokiko gainontzeko ondare prestazioak, nahiz eta kasuren batean eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusi izan; eta ez dira zerga oinarritzat hartuko, ez profesionalen ordainsariak, ez kontratistaren etekin enpresarialak, ez eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostua zehatz-mehatz jasotzen ez duen beste inolako kontzepturik.

2. Udalaren lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obraren kasuan, Udalak finkatuko du zerga oinarria.

## VII. HOBARIAK

**10. artikulua**

1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen badira, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:

a) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa

construcción, instalación u obra, sean o no propietarios/as del inmueble sobre el que se realice aquella.

2.º A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño/a de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

**Artículo 8**

1.º En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente, tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previa o quienes realicen las construcciones, instalaciones y obras.

2.º Quien sustituya podrá exigir de la persona contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

## VI. BASE IMPONIBLE

**Artículo 9**

1.º La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquella.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el valor añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial de la persona contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

2.º En el caso de construcciones, instalaciones u obras sin licencia municipal, la base imponible se fijará por la administración municipal.

## VII. BONIFICACIONES

**Artículo 10**

1.- Cuando las construcciones, instalaciones u obras sean declaradas de especial interés o utilidad municipal, por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo, se aplicarán las siguientes bonificaciones:

a) Las obras de restauración realizadas en el ámbito

Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberritze obrak, zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute.

b) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obrak, zerga-kuotaren %60eko hobaria jasoko dute.

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, % 95eko hobaria izango dute.

d) Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberritze obrek, % 95eko hobaria izango dute.

e) Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetako obrak % 80eko hobaria izango dute.

f) Jarduera ekonomikoaren lotutako 200 metro karratu baina gutxiagoko lokaletan egindako obren kasuetan, 50.000 eurotik beherako aurrekontu materiala duten obretan % 95eko hobaria izango dute.

g) Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalaz gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %95ko hobaria izango dute.

Apartatu honetako bi hobari-kasu edo gehiago gertatzen badira, ehuneko handiena duen kontzeptuagatik soilik aplikatuko da hobaria.

2.- Zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute autokontsumorako eguzki energia aprobetxatzeko sistemak erabiltzen dituztenek. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea. Hobari hau ondorengo balizko egoeran baino ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean edota araudiak eskatutakoa gainditzen duen zatian. Era berean, hobaria ondorengoetan baino ez da aplikatuko: eguzki energia

geográfico de las zonas de Casco Viejo, Plaza EH y su entorno y Santa Clara, percibirán una bonificación del 95% de la cuota tributaria.

b) Las obras de nueva planta en el ámbito geográfico de las zonas de Casco Viejo, Plaza EH y su entorno y Santa Clara, se bonificarán en el 60% de la cuota tributaria.

c) Las obras de nueva planta con destino a viviendas de protección oficial promovidas por sociedades de promoción pública directa o dependientes de cualquier Administración pública, tanto las destinadas a viviendas de régimen general como las destinadas a viviendas de régimen especial o sociales, tendrán una bonificación del 95%.

d) Las obras de rehabilitación de viviendas que se realicen al amparo de Alokabide para su incorporación al Programa Bizigune, tendrán una bonificación del 95%.

e) Las obras dedicadas exclusivamente a la explotación agropecuaria y las obras en inmuebles vinculados tendrán una bonificación del 80%.

f) En el caso de obras realizadas en locales de menos de 200 metros cuadrados afectos a actividad económica, tendrán una bonificación del 95% en obras de presupuesto material inferior a 50.000 euros.

g) Se bonificarán en un 95% las obras o instalaciones constructivas realizadas dentro del Patrimonio Catalogado del Plan General de Ordenación Urbana aprobado por el Ayuntamiento, en la relación de bienes y elementos incluidos en el Patrimonio Urbanístico del municipio, o en las obras realizadas por las Administraciones supramunicipales competentes en los edificios incluidos en la relación de bienes y elementos protegidos según la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco.

En el caso de que concurran dos o más supuestos de bonificación de este apartado, la bonificación se aplicará únicamente por el concepto con mayor porcentaje.

2.- Gozarán de una bonificación del 95% de la cuota tributaria quienes utilicen sistemas de aprovechamiento de la energía solar para autoconsumo. No obstante, para la aplicación de esta bonificación será necesario que las instalaciones de producción de calor estén equipadas con colectores homologados por la Administración competente. Esta bonificación sólo será de aplicación en el supuesto de que la normativa correspondiente no exija la instalación de los citados sistemas o en la parte que exceda de la exigida por la normativa. Asimismo, la bonificación solo se aplicará sobre la parte de la cuota

aprobetxatzeko sistemak gehitzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean. Edonola ere, hobari honen ezarpena, instalazioaren mantenu kontratuaren edota instalazioak funtzionatzen hasteko administrazioaren baimena aurkeztearen menpe egongo da.

correspondiente a la partida destinada a la construcción, instalación y obra que incorporen sistemas de aprovechamiento de la energía solar. En todo caso, la aplicación de esta bonificación estará condicionada al contrato de mantenimiento de la instalación o a la presentación de la autorización administrativa para su puesta en funcionamiento.

3.- Sustatzaile pribatuek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, % 50eko hobaria izango dute.

3.- Las obras de nueva planta con destino a viviendas de protección oficial promovidas por promotores privados, tanto las destinadas a viviendas de régimen general como las destinadas a viviendas de régimen especial o viviendas sociales, tendrán una bonificación del 50%.

4.- Pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek % 90ko hobaria izango dute. Hobari hau etxebizitza eraikinetako zona komunetako sarrera-irteeren edota etxebizitza partikularren barruko irisgarritasuna hobetzeko egiten diren obrei aplikatuko zaie, beharrezkoak direla frogatzen diren heinean. Hau ez da aplikatuko etxebizitza eraiki berrietan. Irisgarritasuna hobetzeko obrei dagokien zenbatekoaren gainean besterik ez da aplikatuko hobari hau. Udal teknikariek beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatuko dute, zehazteko irisgarritasun elementuak eta horrek eskatzen dituen obra minimo eta ezinbestekoak.

4.- Las construcciones, instalaciones y obras que faciliten las condiciones de accesibilidad y habitabilidad de las personas con discapacidad tendrán una bonificación del 90%. Esta bonificación será de aplicación a las obras que se realicen para la mejora de la accesibilidad en las zonas comunes de los edificios de viviendas y/o en el interior de las viviendas particulares, en la medida en que se acredite su necesidad. No será de aplicación en las viviendas de nueva construcción. Esta bonificación se aplicará únicamente sobre el importe correspondiente a las obras de mejora de la accesibilidad. Los técnicos municipales solicitarán la información que consideren necesaria para determinar los elementos de accesibilidad y las obras mínimas e imprescindibles que ello requiera.

## VII. ZERGA KUOTA

### 11. artikulua

Zergaren kuota zehazteko, zerga oinarriari eranskineko karga tasa aplikatu behar zaio.

## VIII. CUOTA TRIBUTARIA

### Artículo 11

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible, el tipo de gravamen que se expresa en el anexo.

## VIII. SORTZAPENA

### 12. artikulua

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hastean gertatzen da, nahiz eta dagokion lizentziarik ez eduki.

## IX. DEVENGO

### Artículo 12

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

## IX. KUDEAKETA

### 13. artikulua

Aginduzko lizentzia emandakoan edo, derrigorrezko lizentzia hori oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik, eraikuntza, instalazioa edo obra hasten bada, behin behineko likidazioa egingo da eta zerga oinarria

## X. GESTIÓN

### Artículo 13

Cuando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o la comunicación previa, o cuando no habiéndose solicitado, concedido o denegado aún aquella o presentando éstas, se inicie

interesatuek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, baldin eta aurrekontua dagokion elkargo ofizialak ikus onetsia izan bada; horrela ez bada, udal teknikariek zehaztuko dute zerga oinarria, proiektuaren kostuaren arabera.

la construcción, instalación y obra, se practicará una liquidación provisional a cuenta, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente cuando ello constituya un requisito preceptivo; en otro caso, la base imponible será determinada por la plantilla municipal, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

**14. artikulua**

Lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, behin behineko likidazio berria egiteko (proiektu aldatuaren arabera, lehenbiziko likidazioaren zenbatekoa gainditzen duen kopuruaz) aurrekontu berria aurkeztu beharko da.

**Artículo 14**

Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

**15. artikulua**

1. Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren benetako kostua ikusiz, Udalak, behar den administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, zerga oinarria, dagokion behin betiko likidazioa eginez eta dagokion zenbatekoa subjektu pasiboari eskatuz edo, hala gertatuz gero, itzuliz.

2. Aurreko atalean xedatuaren ondoriotarako, obra bukatu edo behinbehinerako onartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, zirkunstantzia honen aitorpena aurkeztuko da Udalak hartarako jarriko duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin, ahal denean dagokion kolegio profesionalak ikus onetsita, non ziurtatuko den obren kostu osoa, bertan sartuz zuzendaritzaren eta proiektuaren eskubide fakultatiboak, onura industriala eta obren ondoriozko beste batzuk.

3. Aurreko idatz-zatian xedatua betetzen ez duenari, dituen obligazioak alde batera utzita, behin behineko zerga oinarria udal zerbitzu teknikoek kalkulatuko diote, benetan eginda dagoenari balioesten zaion kostuaren arabera. Balioespena behin betikoa eta erreboka ezina izango da.

Aurrekoaz gainera, erantzukizuna duen subjektu pasiboari aipatutako balioespena egiteko zerbitzuen kostuak egotzi ahal izango zaizkio eta Zerga Arau Foral Orokorrak xedatuaren arabera legozkiokeen santzioak ezarri.

4.- Autolikidazio bidez kudeatu ahal izango da.

**Artículo 15**

1. Una vez finalizada la construcción, instalación y obra, y teniendo en cuenta el coste real y efectivo de la misma, el Ayuntamiento, mediante la oportuna comprobación administrativa, modificará, en su caso, la base imponible practicando la correspondiente liquidación definitiva, y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la administración municipal, acompañada de certificación de la dirección facultativa de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique el costo total de las obras.

3. A quien incumpla lo establecido en el apartado anterior, haciendo dejación de sus obligaciones, se le calculará la base imponible definitiva a través de los servicios técnicos municipales de acuerdo con el coste estimado de lo realmente ejecutado, siendo su estimación definitiva e irrevocable.

Todo ello sin perjuicio a que le sea imputado al sujeto pasivo responsable el coste de los servicios destinados a dicha estimación, así como de las sanciones que le corresponda conforme a lo establecido en la Norma Foral General Tributaria.

4. Se podrá gestionar mediante autoliquidación.

**16. artikulua**

Isiltasun administratibo positiboaren aplikazioagatik emandako lizentziak, espresuki emandakoaren balio bera izango du zergaren likidaziorako.

**Artículo 16**

Las licencias concedidas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrán el mismo valor que las concedidas expresamente, en cuanto a la liquidación del impuesto.

**17. artikulua**

Ordenantza honetan erregulatutako zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, hala nola, zerga urrapenen kalifikazioaz eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenez, Foru Zerga Arau Orokorrean aurreikusitakoa erabiliko da, baita ere 15/1989 Foru Arauean, uztailaren 5ekoa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko zergari dagokionez.

**Artículo 17**

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto regulado en esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria y la Norma Foral 15/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

**18. artikulua**

Lizentziaren titularrak, baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakitzen badu –idatziz egindako ukoaren bitartez- Udalak eginiko behin behineko likidazioa itzuli edo deuseztatu egingo du. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hirigintzako Sailari jakinaraziko zaio, haiek emandako eskubideak deusezta ditzaten.

**Artículo 18**

Si la persona titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada y a su notificación al Departamento de Urbanismo del Gobierno Vasco para su conocimiento y anulación de los derechos por ellos otorgados.

**19. artikulua**

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo bertan behera utziko du, baldin eta titularrak lizentzia berritzea eskatzen ez badu eta Udalak baimena eman.

**Artículo 19**

Caducada una licencia, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que la persona titular solicite su renovación y el Ayuntamiento autorice.

**20. artikulua**

Erantzukizunezko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar den kasuetan, autolikidazio bidez kudeatu ahal izango da.

**Artículo 20**

En caso de presentación de declaración responsable o comunicación previa, se podrá gestionar mediante autoliquidación.

## X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Osoko Bilkuraren onespena jaso zuen 2019ko irailaren 26an, 2020ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean eta halaxe jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

## X. DISPOSICIÓN FINAL

La Ordenanza Fiscal transcrita fue aprobada por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de septiembre de 2019 entrando en vigor el 1 de enero de 2020 y continuará en vigor en tanto no se acuerde su modificación o derogación.

Tolosan, 2025eko uztailaren 3an

ALKATEA KONTU-HARTZAILEA IDAZKARIA

I ERANSKINA / ANEXO I

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Eraikuntza, instalazio eta obrak. | Construcciones, instalaciones y obras en general | 5, % |

## 1.5. HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

## I.XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua**

Udal honek hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta galdatzen du, Ordenantza honen arabera, eta Lurralde Historikoko Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan eta zerga honi bereziki dagokion uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauan aurreikusiarekin bat etorriz. Portzentajeen lauki eta tarifa aplikagarrien eranskina Ordenantzaren atala da.

**2. artikulua**

Ordenantza udalerri osoan aplikatzen da.

## II. ZERGA EGITATEA

**3. artikulua**

Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga zuzeneko zerga da. Horrekin hiri izaerako lursailen batek izan dezakeen balio gehikuntza kargatzen da, lursailaren jabetza edozein tituluren bidez transmititzen denean edo haren gainean jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratzen edo transmititzen denean, gehikuntza hori ageri egin bada.

## III. ZERGARI EZ LOTUAK

**4. artikulua**

Ez dira zerga honi lotuko:

a) Ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako nekazaritza izaerako lurrek jasaten duten balio gehikuntza. Ondorioz, ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako, hiri izaera eduki behar duten lurrek jasan dezaketen balio gehikuntza zergari lotuta dago, ondasun higiezinen katastroan edo erroldan hiri izaerako ondasuntzat jasota egon edo ez.

b) Hiri izaerako lurrek jasan dezaketen balio gehikuntza, sozietateen gaineko zerga arautzen duen uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauko VIII. tituluko X. kapituluan arautzen den erregimen berezia aplika dakiekeen operazioen ondoriozko transmisioak egiten direnean. Nolanahi ere, zerga honetatik salbuetsita

## 1.5. IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

## I. DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1**

Este Ayuntamiento establece y exige el Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana, con arreglo a la presente Ordenanza y de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y en la Norma Foral 16/1989 de 5 de Julio particular del tributo. Es parte integrante de la Ordenanza el anexo en el que se contienen el cuadro de porcentajes y las tarifas aplicables.

**Artículo 2**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

## II. HECHO IMPONIBLE

**Artículo 3**

El impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana es un tributo directo que grava el incremento del valor que experimenten dichos terrenos y se ponga de manifiesto a consecuencia de la transmisión de la propiedad de los mismos por cualquier título, o de la constitución o transmisión de cualquier derecho real de goce, limitativo del dominio, sobre los referidos terrenos.

## III.NO SUJECIÓN

**Artículo 4**

No se producirá la sujeción a este impuesto de:

a) El incremento de valor que experimenten los terrenos que tengan la consideración de rústicos a efectos del impuesto sobre bienes inmuebles. En consecuencia, está sujeto el incremento de valor que experimenten los terrenos que deban tener la consideración de urbanos, a efectos de dicho impuesto sobre bienes Inmuebles, con independencia de que estén o no contemplados como tales en el catastro o en el Padrón de aquel.

b) El incremento de valor que experimenten los terrenos de naturaleza urbana con ocasión de las transmisiones derivadas de operaciones a las que resulte aplicable el régimen especial regulado en el capítulo X del título VIII de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del impuesto sobre sociedades, a excepción

daude aipatu foru arauko 101.aArtikuluan aurreikusitakoaren babesean ekartzen diren lurrei dagokiena.

de las relativas a terrenos que se aporten al amparo de lo previsto en el artículo 101 de la citada Norma Foral, cuando no se hallen integrados en una rama de actividad.

Gerora aipameneko lurrak transmititzen direnean, balio gehikuntza agerian jarrita egon den urteen kopurua ez dela eten ulertuko da, aipatutako foru arauko VIII. tituluko X. kapituluan aurreikusitako operazioen bidezko transmisioen ondorioz.

En la posterior transmisión de los mencionados terrenos se entenderá que el número de años a lo largo de los cuales se ha puesto de manifiesto el incremento de valor no se ha interrumpido por causa de la transmisión derivada de las operaciones previstas en el referido capítulo X del Título VIII.

c) Ezkontideek ezkon sozietateari ondasun eta eskubideen ekarpenak egiten dizkiotenean, edota beren alde egindako esleipenetan eta horien ordainetan –betiere egiaztatzen badira–, hala nola ezkontideei beren ondasun komunen ordainetan egindako transmisioetan.

c) En los supuestos de aportaciones de bienes y derechos realizadas por la pareja conyugal a la sociedad conyugal, adjudicaciones que a su favor y en pago de ellas se verifiquen y transmisiones que se hagan a la pareja conyugal en pago de sus haberes comunes.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasu berdinetan, izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak xedatutakoaren arabera osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdaketei dagokienez.

Igual disposición se aplicará, en los mismos supuestos a que se refiere el párrafo anterior, respecto de las aportaciones, adjudicaciones y transmisiones que efectúen las y los miembros de la pareja de hecho constituida con arreglo a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho.

Ondasun higiezinak ezkontideen artean, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikoteko kideen artean edo beren seme-alaben alde transmititzen direnean ere ez dira lotuko zergari, transmisio horiek ezkontza deuseztatu edo ezkonduak banandu edo dibortziatu direlako edo izatezko bikotea amaitzean emandako sententziak betetzearen ondorio badira, edozein delarik ere ezkonduen ezkontzako erregimen ekonomikoa.

Tampoco se producirá la sujeción al impuesto en los supuestos de transmisiones de bienes inmuebles entre cónyuges, entre miembros de la pareja de hecho constituida con arreglo a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, o a favor de los y las hijas, como consecuencia del cumplimiento de sentencias en los casos de nulidad, separación o divorcio matrimonial o extinción de la pareja de hecho sea cual sea el régimen económico matrimonial.

**4.d) Artikulua:**

Lurren eskualdaketak ez dira egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzean balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dela izan frogatu nahi duen pertsona edo entitate interesdunak eskualdaketa aitortu behar-ko du, eta eskualdaketa eta eskurapena dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu ere bai; ondorio horietarako, 3. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo entitateak izango dira interesdun.

Eskualdaketan balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzeko, honako hau hartuko da lurraren eskualdaketa edo eskurapen baliotzat kasu bakoitzean: eragiketa dokumentatzen duen titulu-an ageri dena edo, kasua bada, Zerga Administrazioak egiazta-tutakoa. Ondorio horietarako, eragiketa horietan izandako gastuak edo aplikatutako tributuak ezingo dira konputatu, eta ez da inolako eguneratzerik izango denbora igarotzeagatik.

**Artículo 4.d):**

No se producirá la sujeción al impuesto en las transmisiones de terrenos respecto de los cuales se constate la inexistencia de incremento de valor por diferencia entre los valores de dichos terrenos en las fechas de transmisión y adquisición.

Para ello, la persona o entidad interesada en acreditar la inexistencia de incremento de valor deberá declarar la transmisión, así como aportar los títulos que documenten la transmisión y la adquisición, entendiéndose por personas o entidades interesadas, a estos efectos, las personas o entidades a que se refiere el artículo 3.

Para constatar la inexistencia de incremento de valor, como valor de transmisión o de adquisición del terreno se tomará en cada caso el mayor de los siguientes valores, sin que a estos efectos puedan computarse los gastos o tributos que graven dichas operaciones, ni efectuarse ninguna actualización por el transcurso del tiempo: el que conste en el título que documente la operación o el comprobado, en su caso, por la Administración tributaria.

Higiezinaren eskualdaketan lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruaren baliotzat hartuko da zergaren sortzapen egunean lurraren katastro balioak katastro balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaie bai eskualdaketa balioari eta, hala badagokio, baita eskurapen balioari ere.

Cuando se trate de la transmisión de un inmueble en el que haya suelo y construcción, se tomará como valor del suelo a estos efectos el que resulte de aplicar la proporción que represente en la fecha de devengo del impuesto el valor catastral del terreno respecto del valor catastral total y esta proporción se aplicará tanto al valor de transmisión como, en su caso, al de adquisición.

Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa izan bada, aurre-ko paragrafoetako erregelak izango dira aplikagarriak, eta, hala dagokionean, gorago aipatutako bi balio konparagarrietatik lehenengotzat oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa hartuko da.

Si la adquisición o la transmisión hubiera sido a título lucrativo se aplicarán las reglas de los párrafos anteriores tomando, en su caso, por el primero de los dos valores a comparar señala-dos anteriormente, el declarado en el impuesto sobre sucesiones y donaciones.

Apartatu honetan aipatutako higiezinen ondorengo eskualda-ketan, lurren balio gehikuntza zenbat urtetan sortu den konputa-tzeko, higiezina eskuratu aurreko denbora ez da kontuan hartu-ko. Ondasun higiezinen ekarpen edo eskualdaketei ez zaie aplikatuko paragrafo honetan xedatutakoa, artikulu honen 2. apartatuko b) eta c) letren arabera zergari lotuta ez daudenean.

En la posterior transmisión de los inmuebles a los que se refiere este apartado, para el cómputo del número de años a lo largo de los cuales se ha puesto de manifiesto el incremento de valor de los terrenos, no se tendrá en cuenta el periodo anterior a su adquisición. Lo dispuesto en este párrafo no será de aplicación en los supuestos de aportaciones o transmisiones de bienes inmuebles que resulten no sujetas en virtud de lo dispuesto en las letras b) y c) del apartado 2 de este artículo.

## IV. SALBUESPENAK.

## IV. EXENCIONES

### 5. artíkulua

1. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude honako jarduerek dituzten balio gehikuntzak:

a) Zortasun eskubideak eratzea eta transmititzea.

b) Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 4.2.e) artikuluan aurreikusten den salbuespenaren aplikazioa dagokien ondasunen transmisioak, horien jabeek edo eskubide errealen titularrek egiaztatzen badute beraien kargura kontserbatze, hobetze eta birgaitze obrak egin dituztela.

Salbuespen honen eraginkortasuna honako betebeharrera lotuta dago: egin diren kontserbatze, hobetze eta birgaitze obrak udal lizentzia lortu beharrari lotutakoak izatea. Premiazkoa izango da, halaber, aipatu obrak ondasuna inorenganatu aurreko bi urteetan egindakoak izatea.

Aurrean araututakoaren ondorioetarako, kontserbatze, hobetze eta birgaitze obratzat joko dira eraikuntza sendotzeko egindakoak edo egitura, fatxada edo estalkiak sendotzeko egindakoak eta antzekoak, baldin eta obraren kostu osoak katastro balioaren % 75 gainditzen badu.

### Artículo 5

1.º Estarán exentos de este impuesto los incrementos de valor que se manifiesten como consecuencia de los siguientes actos:

a) La constitución y transmisión de derechos de servidumbre.

b) Las transmisiones de bienes a los que resulte la aplicación de la exención prevista en el artículo 4.2.e) de la Norma Foral 12/1989 de 5 de julio, del impuesto sobre bienes inmuebles, cuando las personas propietarias o titulares de derechos reales acrediten que han realizado a su cargo obras de conservación, mejora o rehabilitación en dichos inmuebles.

La efectividad de esta exención queda condicionada a que las obras de conservación, mejora o rehabilitación hubieran quedado efectivamente sujetas a licencia municipal. Asimismo, será preciso que las mencionadas obras se hubieran efectuado durante los dos años inmediatamente anteriores a la enajenación.

A estos efectos, se entenderá por obras de conservación, mejora o rehabilitación las que tienen por objeto la reconstrucción de edificaciones mediante la consolidación y el tratamiento de las estructuras, fachadas o cubiertas y otras análogas siempre que el coste global de estas obras exceda del 75 % del valor catastral.

2. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude, berebat, balio gehikuntzaren zerga ordaindu behar dutenak honako pertsona eta entitateak badira:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, hala nola lurraldeetako herri administrazioko organismo autonomoak eta antzeko jitea duten eskubide publikoko erakundeak.

b) Tolosako Udalak eta gainontzeko udal erakundeak, hala nola organismo autonomoak eta antzeko jitea duten eskubide publikoko erakundeak.

c) Onegintza edo irakaskuntzako onegintza izaera duten entitateak.

d) Gizarte Segurantza indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurrezaintzako mutualitateak.

e) Itzuli beharreko kontzesio administratiboen titularrek, kontzesioak ukitzen dituen lurrei dagokienez.

f) Gurutze Gorria eta antzeko entitateak, arauz hala erabakitzen denean

g) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena onartu zaien pertsona edo entitateak.

2.º Asimismo, estarán exentos de este impuesto los correspondientes incrementos de valor cuando la obligación de satisfacer aquél recaiga sobre las siguientes personas o entidades:

a) El Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Guipúzcoa, así como los organismos autónomos y entidades de derecho público de análogo carácter de las citadas Administraciones Públicas territoriales.

b) El Ayuntamiento de Tolosa y demás entidades municipales, así como los organismos autónomos y entidades de derecho público de análogo carácter.

c) Las instituciones que tengan la condición de benéficas o de benéfico– docentes.

d) Las entidades gestoras de la Seguridad Social y las mutualidades de previsión social constituidas conforme a lo previsto en la legislación vigente.

e) Las personas titulares de concesiones administrativas revertibles respecto de los terrenos afectos a las mismas.

f) La Cruz Roja y otras entidades asimilables que reglamentariamente se determine.

g) Las personas o entidades a cuyo favor se haya reconocido la exención en tratados o convenios internacionales.

## V. SUBJEKTU PASIBOAK

### 6. artikulua

1. Hurrengoak dira zergaren subjektu pasiboak:

a) Lurren transmisioetan edo irabazi gisaz jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eraketa edo transmisioetan, lursailaren eskuratzailea edo eskubide erreala eratzen zaion edo transmititzen zaion pertsona.

b) Lurren transmisioetan edo jabaria mugatzen duten kostubidezko gozamen eskubide errealak eratu edo eskualdatzean, lurraren transmititzailea edo eskubide erreala eratzen duen edo transmititzen duen pertsona.

2. Aurreko apartatuaren b) letran aipatutako kasuetan, zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat hartuko da lurra erosten duen pertsona fisiko edo juridikoa edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako entitatea, edo dena delako ondasun eskubidea haren alde eratu edo eskualdatzen zaion pertsona, baldin eta zergaduna Espainian egoiliarra ez den pertsona fisikoa bada.

3. Lurrak ohiko etxebizitzaren hipoteka

## V. SUJETOS PASIVOS

### Artículo 6

1.º Es sujeto pasivo del impuesto:

a) En las transmisiones de terrenos o en la constitución o transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio a título lucrativo, quien adquiere el terreno a la persona a cuyo favor se constituya o transmita el derecho real de que se trate.

b) En las transmisiones de terrenos o en la constitución o transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio a título oneroso, quien transmite el terreno o la persona que constituya o transmita el derecho real de que se trate.

2.º En los supuestos a que se refiere la letra b) del apartado anterior, tendrá la consideración de sujeto pasivo sustituto del contribuyente, la persona física o jurídica, o la entidad a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que adquiera el terreno o a cuyo favor se constituya o transmita el derecho real de que se trate, cuando la persona contribuyente sea una persona física no residente en España.

3.º En las transmisiones de terrenos como

betearazteagatik eskualdatzen direnean, haiek eskuratzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen den entitatea hartuko da zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezkoak ezingo dio zergadunari exijitu ordaindutako obligazio tributarioaren zenbatekoa. Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 90.8 artikuluan halakotzat definitutakoa.

4. martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuak, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzkoak, 2. artikuluan ezarritakoan sartzen diren zordunek euren etxebizitza zorren ordainez emateagatik egindako eskualdaketetan, ondasun higiezina eskuratzen duen entitatea izango da zergadunaren ordezko subjektu pasiboa, eta ordezkoak ezin izango dio zergadunari exijitu ordaindutako zerga obligazioen zenbatekoa.

consecuencia de la ejecución hipotecaria de la vivienda habitual, tendrá la consideración de sujeto pasivo sustituto de la persona contribuyente la persona física o jurídica, o la entidad a la que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que adquiera el terreno.

En los supuestos previstos en el párrafo anterior, quien sustituya no podrá exigir de la persona contribuyente el importe de la obligación tributaria satisfecha. A los efectos previstos en este apartado, se entenderá por vivienda habitual la definida como tal en el apartado 8 del artículo 90 de la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4.º En las transmisiones realizadas por las personas deudoras comprendidas en el ámbito de aplicación del artículo 2 del Real Decreto-ley 6/2012, de 9 de marzo, de medidas urgentes de protección de deudores hipotecarios sin recursos, con ocasión de la dación en pago de su vivienda prevista en el apartado 3 del Anexo de dicha norma, tendrá la consideración de sujeto pasivo sustituto de la persona contribuyente la entidad que adquiera el inmueble, sin que quien sustituya pueda exigir de la persona contribuyente el importe de las obligaciones tributarias satisfechas.

## VI. ZERGA OINARRIA

### 7. artikulua

1. Zerga honen zerga oinarria lurren balio gehikuntza da, hain zuzen ere, sortzapenaren unean agerian jarri eta gehienez ere hogei urteko epean izandakoa. Haren zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da, artikulu honen 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe: artikulu horren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera sortzapenaren unean lurrari kalkulatu zaion balioa bider 3. apartatuaren arabera sorreraldiari dagokion koefizientea.

2. Sortzapenaren unean lurrak zer balio duen zehazteko, erre-gela hauek aplikatuko dira:

a) Lurren eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako une horretantxe dutena izango da.

Hala ere, balio hori balio ponentzia baten ondorio bada, eta ponentzia horretan ez badira islatzen hura onartu ondoren onartu diren planeamendu aldaketak, zilegi izango da zerga honen behin-behineko likidazio bat egitea balio ponentzia horretatik abiatuta. Horrelako kasuetan, behin betiko likidazioan aplikatuko den balioa kasuan kasuko balio ponentziaren alda-ketan edo balioen berrikuspenean xedatutakoaren arabera ateratzen dena izango da,

## VI. BASE IMPONIBLE

### Artículo 7

4.3. Tendrán una reducción, aquellas personas que soliciten y que la unidad convivencial cumpla los siguientes requisitos:

- Patrimonio no superior a 42.900 euros. En la aplicación de esta norma no se tendrán en cuenta los bienes inmuebles de residencia habitual, garajes (hasta un máximo de dos garajes) y el local en el que alguno o alguna de los/las miembros de la unidad familiar ejerza una actividad por cuenta propia.

Una vez cumplidos los requisitos, la rebaja del precio público se calculará en función del ingreso de los y las miembros de la unidad convivencial:

| **Bizikidetza unitateko kide kopurua /** Número de miembros de la unidad convencional | **0-LGS** | **LGS -1,2 *LGS** | **1,2 *LGS - 1,4 *LGS** | **1,4 *LGS - 1,55 *LGS** |
|---|---|---|---|---|
| 1-2 | %80 | %60 | %50 | %0 |
| 3 | %90 | %70 | %60 | %25 |
| 4 o más | %95 | %90 | %90 | %60 |

Atal honetako prezio publikoen jeitsiera lortzeko, bizikidetza unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute

4.1., 4.2 eta 4.3 ataletako jeitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentai handiena duen jeitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzatzaileari onura gehien sortzen dion jeitsiera.

Para obtener la reducción de los precios públicos deberán presentar la información fiscal de los y las miembros de la unidad convivencial

Si cumplen los requisitos para acceder a las reducciones de los apartados 4.1, 4.2 y 4.3, se les aplicará la rebaja con mayor porcentaje, es decir, la que mayor beneficio genera al/a la solicitante

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2023eko urriaren 26an.

Las tarifas de este Anexo fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de octubre de 2023.

Eranskin honetako aplikazio arauek Osoko Bilkuraren behin betiko onespena jaso zuten 2023ko urriaren 26an

Las normas de aplicación de este anexo fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de octubre de 2023.

Tolosan, 2024ko irailaren 23an

ALKATEA KONTU-HARTZAILEA IDAZKARIA

| **3.1.7 KULTUR TAILERRAK** | **3.1.7 KULTUR TAILERRAK** |
|---|---|

ERANSKINA / ANEXO

| | | **2025-2026** |
|---|---|---|
| **Pintura ikastaroa.14 urtez gorakoak** | Curso de pintura. Mayores de 14 años | 220,55 |
| **Eskulanak. 6-14 urte bitartekoak** | Manualidades. De 6 a 14 años | 162,25 |
| **Zeramika ikastaroa,urteko** | Curso de cerámica, anual | 220,55 |
| **Antzerki ikasturtea** | Curso de teatro, anual | 196,55 |
| **Argazkigintza (100 ordu)** | Fotografía (100 horas) | 265,10 |
| **Argazkigintza (80 ordu)** | Fotografía (80 horas) | 212,10 |
| **Argazkigintza (60 ordu)** | Fotografía (60 horas) | 159,05 |
| **Balleta** | Ballet | 167,95 |
| **Baleta aurreratua** | Ballet avanzado | 229,70 |
| **Balleta puntak** | Ballet puntas | 62,85 |
| **Dantza garaikidea** | Baile contemporaneo | 229,70 |
| **Ehoziriak eta patchwork** | Encaje de bolillos y patchwork | 220,55 |
| **Ez ohiko ikastaroak** | Cursos extraordinarios | 4€/ orduko |

**APLIKAZIO ARAUAK**

1.- Tarifatutako gaiei buruzko espezializazio ikastaroak antolatzeko ahalmena izango du udalak. Ikastaro horien prezioa kostuaren araberakoa izango da. Era berean, bestelako ikastaroak antolatzea Udalaren eskumena da. Horrelakoetan, dagozkien kostuen araberako prezio publikoak finkatuko ditu Udalak

2.-Udalak eranskineko taulan aurreikusitako ikastaroak eskainiko ditu. Aurreikusitako ikastaroaren iraupena aldatzen bada, tarifa proportzionalki hainbanatuko da.

**NORMAS DE APLICACIÓN**

1.- El Ayuntamiento tiene la facultad de organizar cursillos de especialización sobre las materias tarifadas, cuyo precio será en función de su coste. Así mismo, es competencia del Ayuntamiento organizar otros cursillos diferentes, en los que el Ayuntamiento fijará los precios públicos en función de los costes correspondientes.

2.- El Ayuntamiento ofrecerá los cursos previstos en la tabla anexa. En caso de variación en la duración prevista del curso, la tarifa se prorrateará proporcionalmente.

3.- Ordainarazpena matrikula egiterakoan sortuko da. Matrikula egiteko nahitaezkoa da aurreko ikasturteetako kuota guztiak ordainduta edukitzea.

3.- Este precio público se devenga al realizar la matrícula. Para matricularse, será imprescindible tener abonadas todas las cuotas de cursos anteriores.

4.- Materialaren ordainketa zuzendaritzak berak erabakiko du nola egin.

4.- La dirección determinará la forma de pago del material.

5.- Matrikulazio aukerak eta zenbatekoa ordaintzeko moduak:

5.- Tipos de matrícula y formas de pago:

5.1.- Ikasturte osoa (urritik ekainera)

- Tarifa osoa matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin. Ordainketa epemuga: abenduaren 11
- • Tarifa osoa bi zatitan
  - 1. kuota matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin: %50. Ordainketa epemuga: azaroaren 15etik 30era.
  - 2. kuota: %50. Ordainketa epemuga: otsailaren 15etik 28ra

5.1.- Curso completo (de octubre a junio)

- La tarifa total en el momento de matricularse o de renovar automáticamente la matrícula. Plazo de pago: 11 de diciembre
- La tarifa total en dos plazos
  - La 1ª cuota al formalizar la matrícula o con la renovación automática: 50 %. Plazo de pago: de 15 a 30 de noviembre.
  - La 2ª cuota: 50 %. Plazo de pago: de 15 a 28 de febrero

5.2.- Urtarriletik ekainera: Tarifa osoaren %75. Ordainketa epemuga: otsailaren 15etik 28ra

5.2.- De enero a junio: 75 % de la tarifa total. Plazo de pago: de 15 a 28 de febrero

5.3.- Martxotik ekainera: Tarifa osoaren %50. Ordainketa epemuga: maiatzaren 15etik 30era.

5.3.- De marzo a junio: 50 % de la tarifa total. Plazo de pago: 15 a 30 de mayo.

**6.**

6.- Ikasleak baja eskatzen badu beti ere artikulu honetan adierazitako arrazoiren batengatik, ikastaroaren kuota osoa hilabeteka hainbanatuko da. Ikasleak baja eskatzen den hilabetea ere ordaindu beharko du.

Ikasleak baja eskatzeko arrazoiak:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, eskolara joateko ezintasun larria duela adieraziz
- Haurdunaldia, medikuaren txostenak erabateko atsedena hartu behar duela baldin badio
- Amatasuna
- Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.

Inongo kasutan ez da itzuliko kuotaren zenbateko osoaren % 20a.

**6.**

6.- En el caso de que el alumno solicite baja por alguna de las causas señaladas en este artículo, la cuota íntegra del curso se prorrateará por meses. El alumno o alumna deberá abonar también el mes en el que solicita la baja.

Motivos de baja del alumno/a:

- Enfermedad, con certificado médico que indique incapacidad grave para acudir a la escuela.
- Embarazo, si informe médico prescribe reposo total
- Maternidad
- Traslados o modificaciones obligadas de los estudios reglados u homologados, siempre que se certifiquen por medio de documentos
- Situaciones extraordinarias en el ámbito laboral (traslados, despidos...), siempre que se certifiquen por medio de documentos

En ningún caso se devolverá el 20% del importe total de la cuota.

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Kultura Zerbitzuko zuzendariak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatuz, eta Alkateak ebatziko ditu

Matrikula baliogabetzeko eska daiteke eskolako lehenengo bi asteetan, inolako arrazoirik justifikatu gabe. Kasu horietan, ikasleak matrikularen zenbatekoaren % 20 ordaindu beharko du.

Ikasleak baja eskatzen badu, eskolako lehenengo bi aste pasa ondoren, artikulu honetan aurreikusitako arrazoirik gabe, ikasleak kuotaren zenbateko osoa ordaindu beharko du.

**7.-PREZIO JAITSIERA**

7.1. Familia ugariek eta guraso bakarrek %50eko jaitsiera izango dute.

Familia gurasobakarren kasuan, subjektu pasiboak urtero eskatu beharko du prezio jaitsiera.

Familia ugariaren murrizketaz gozatzeko, subjektu pasiboak eskatu egin behar du, eta, aldi berean, honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Matrikulatzen den ikasturtearen matrikula egiteko epealdian familia ugariaren izaera edukitzea.
- Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin behar izango.

Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboa behartuta dago prezio publikoaren murrizketa horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketen berri ematera, eta aldaketa horiek nolanahi ere, gertatu diren ekitaldian ez, hurrengoan izango dute eragina.

Administrazioak beretzat gordetzen du prezio publikoaren jaitsiera onartu eta emateko behar diren baldintzak betetzen diren ala ez ofizioz egiaztatzeko eskubidea, eta subjektu pasiboak prezio publikoaren jaitsier eskuratzeko eskubidea duela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak aurkez daitezen eskatzekoa ere bai.

7.2. Eskaera egiten dutenei, Tolosako udalarekin zorrik ez badute eta Gizarteratzeko eta Diru- sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, %80 murriztuko zaie prezio publikoa

7.3. Eskaera egiten dutenei, bizikidetza unitatearen ondorengo baldintzak betetzen baditu:

Las solicitudes que se formulen por tales motivos serán estudiadas por el Director del Servicio de Cultura, quien emitirá el oportuno informe proponiendo la autorización o no de la devolución o cancelación de las cuotas, que serán resueltas por el Alcalde.

Se podrá solicitar la anulación de la matrícula durante las dos primeras semanas de clase sin causa justificada. En estos casos, el alumno o alumna deberá abonar el 20% del importe de la matrícula.

En el caso de que el alumno o alumna solicite la baja después de transcurridas dos primeras semanas de clase, sin que concurra la causa prevista en este artículo, el alumno o alumna deberá abonar el importe íntegro de la cuota.

**7.-REDUCCIÓN DE PRECIO**

7.1. Tendrán una reducción del 50 % del precio público las familias numerosas y las familias monoparentales.

Las familias monoparentales tendrán que solicitar anualmente la reducción del precio público.

El disfrute de la reducción del precio público de las familias numerosas requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y el cumplimiento de las siguientes condiciones:

- Ostentar la condición de familia numerosa en el plazo de matriculación del curso en el que se matricula.
- Para la simplificación de los trámites no será necesaria la renovación anual de las solicitudes

No obstante, el sujeto pasivo está obligado a comunicar las variaciones que se produzcan en ellas condiciones y requisitos de esta reducción y que, en todo caso, surtirán efectos a partir del ejercicio siguiente en que se hayan producido.

La Administración se reserva el derecho de comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos necesarios para el otorgamiento y concesión de la reducción y de requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la reducción

7.2. Tendrán una reducción del 80 % las personas que soliciten que no tengan ninguna deuda con el Ayuntamiento de Tolosa y reúnan los requisitos económicos para las prestaciones ofrecidas por el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos.

7.3. Tendrán una reducción, aquellas personas que soliciten y que la unidad convivencial cumpla los siguientes requisitos:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzerako garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduera bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala

- Patrimonio no superior a 42.900 euros. En la aplicación de esta norma no se tendrán en cuenta los bienes inmuebles de residencia habitual, garajes (hasta un máximo de dos garajes) y el local en el que alguno o alguna de los/las miembros de la unidad familiar ejerza una actividad por cuenta propia.

Behin baldintzak beteta, prezio publikoaren jaitsiera bizikidetza unitateko kideen diru-sarreraren arabera kalkulatuko da

Una vez cumplidos los requisitos, la rebaja del precio público se calculará en función del ingreso de los y las miembros de la unidad convivencial:

| **Bizikidetza unitateko kide kopurua /** Número de miembros de la unidad convencional | **0-LGS** | **LGS -1,2 *LGS** | **1,2 *LGS - 1,4 *LGS** | **1,4 *LGS - 1,55 *LGS** |
|---|---|---|---|---|
| 1-2 | %80 | %60 | %50 | %0 |
| 3 | %90 | %70 | %60 | %25 |
| 4 o más | %95 | %90 | %90 | %60 |

Atal honetako prezio publikoen jaitsiera lortzeko, bizikidetza unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

7.1., 7.2 eta 7.3 ataletako jaitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentaje handiena duen jaitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura gehien sortzen dion jaitsiera.

Para obtener la reducción de los precios públicos deberán presentar la información fiscal de los y las miembros de la unidad convivencial

Si cumplen los requisitos para acceder a las reducciones de los apartados 7.1, 7.2 y 7.3, se les aplicará la rebaja con mayor porcentaje, es decir, la que mayor beneficio genera al/a la solicitante

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2023ko urriaren 26an.

Las tarifas de este Anexo fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de octubre de 2023.

Tolosan, 2024ko abenduaren 31n

ALKATEA KONTU-HARTZAILEA IDAZKARIA

**3.1.8 EUSKALTEGIA**

**3.1.8 EUSKALTEGIA**

ERANSKINA / ANEXO

| | | **2025 / 2026** |
|---|---|---|
| **Aurrez aurreko taldeak (C2 izan ezik)** | Clases presenciales (excepto C2) | 1,39 €/orduko |
| **Aurrez aurreko taldeak C2** | Clases presenciales C2 | 2,09 €/orduko |
| **Autoikaskuntza taldeak (C2 izan ezik)** | Autoaprendizaje (excepto C2) | 2,50 €/orduko |
| **Autoikaskuntza C2** | Autoaprendizaje C2 | 2,63 €/orduko |
| **Jardun bikoa** | Aprendizaje mixto | 1,95 €/orduko |
| **Enpresei eskainitako ikastaroak** | Cursos ofrecidos a empresas | 73 €/orduko<br>1,65 €/km |

**APLIKAZIO ARAUAK**

**1.**

Udalaren esku dago tarifatu ez diren ikastaroak antolatzea eta dagozkien prezio publikoak ezartzea.

**2.**

Ordainarazpena matrikula egiterakoan sortuko da. Matrikulatzeko ezinbesteko baldintza da aurrez ordainduta edukitzea aurreko urteetako kuota guztiak.

**3.- ORDAINKETA EPEAK:**

3.1. HABEren eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetza hitzarmenaren ondorioz, A1 helburu duten ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:

**NORMAS DE APLICACIÓN**

**1.**

El Ayuntamiento se reserva la posibilidad de organizar cursos y de establecer los correspondientes precios públicos.

**2.**

La exacción se considerará devengada en el momento de formalizarse la matrícula. Será condición inexcusable para matricularse el haber satisfecho previamente todas las cuotas de cursos anteriores.

**3.- PLAZOS DE ABONO:**

3.1. Los plazos de pago del precio público en el proceso de concesión de ayudas a los alumnos y alumnas cuyo objetivo es A1, derivado del convenio de colaboración entre HABE y Aitzol Euskaltegi de Tolosa,

son los siguientes:

- Matrikulazio-epean: 0,60 euro orduko, betiere 330 orduraino (ikasleak ordainduko ditu). Ikasle tolosarren kasuan, aplikazio-arau hauetan jaso bezala, matrikula osoaren % 5 ordainduko du ikasleak

- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEk ordainduko du)

- Durante el periodo de matriculación: 0,60 euros/hora, hasta 330 horas (a cargo del alumno/a). En el caso del alumnado de Tolosa, tal y como se recoge en estas normas de aplicación, el alumno o alumna abonará el 5% de la matrícula total

- Resto: en las condiciones reflejadas en el Convenio y siempre antes del 30 de junio (a cargo de HABE)

| 3.2. | HERRITARRAK/CIUDADANOS | | HABEK | HERRITARRAK/ CIUDADANOS |
|---|---|---|---|---|
| | Azaroaren 15a baino lehen/Antes de 15 de noviembre | Abenduaren 15a baino lehen/ Antes de 15 de diciembre | Abenduan/ En diciembre | Irailaren 30a baino lehen/ Antes de 30 de septiembre |
| TOLOSAN ERROLDATUTA/ Empadronados en Tolosa | | | | |
| A1 | %5 | | 0,75€/ord* | Gainontzekoa/ Resto |
| C1C1(16-18 urte) | 0,20 €/ord | | Gainontzekoa | |
| B1-B2 | %5 | | | Gainontzekoa/ Resto |
| C1 | %25 | | | Gainontzekoa/ Resto |
| C2 | %50 | | | Gainontzekoa/ Resto |
| TOLOSAN EZ ERROLDATUTA (epe bakarrean)/ No empadronados en Tolosa (único pago) | | | | |
| A1 | Gainontzekoa/ Resto | | 0,75 €/ord* | |
| C1C1(16-18 urte) | 0,20 €/ord | | Gainontzekoa/ Resto | |
| Gainontzekoak/ Resto | %100 | | | |
| • GEHIENEZ 330 ORDU/ máximo 330 horas | | | | |

3.3. Alkateak gehitu eta luza ditzake ordainketa egiteko epeak kasu berezietan, Euskara eta Hezkuntza Sailaren eskariz

3.4. Gainontzeko ikastaroak epe bakarrean eta ikastaroa hasi aurretik ordaindu beharko dira.

3.5. Matrikula egiterakoan ikasleek kontu korrontea eman beharko dute ordainketa helbideratzeko

3.6. Aitzol Euskaltegian dauden HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikulen ordainketa:

HABEk IVAP, IRALE, JUSTIZIA, LANBIDE eta OSAKIDETZArekin hitzarmena dauka bertako langileek euskara ikas dezaten inolako gasturik izan gabe. Hitzarmen horren arabera, herri erakundeetako langileen matrikula gastuak ordaintzeaz gain, euskalduntze-prozesuan euskaltegiek asistentzia datuak bildu eta HABEra bidaltzeagatiko zerbitzua ere

3.3. La Alcaldía podrá, según sea el caso, prorrogar o ampliar los plazos para el abono de las tarifas, a propuesta del Área de Euskara y Educación

3.4. En el resto de los cursos deberá abonarse en un único plazo y antes de su inicio

3.5. Al matricularse deberán aportar el nº de la cuenta corriente a fin de domiciliar el recibo.

3.6. Pago de las matrículas del alumnado de Aitzol Euskaltegia bajo convenio de HABE:

HABE tiene un convenio con el IVAP, IRALE, JUSTICIA, LANBIDE y OSAKIDETZA para que su personal aprenda euskera sin ningún tipo de gasto. En virtud de dicho convenio, además de sufragar los gastos de matrícula del personal de las entidades públicas, se financia el servicio de recogida de datos de asistencia por parte de los euskaltegis en el

finantzatzen da. HABEk hitzarmenpeko ikasleen matrikulak eta kudeaketa gastuak ordaintzeko HABEk onartutako epeen arabera ezarriko da.

proceso de euskaldunización y su envío a HABE. Se establecerá de acuerdo con los plazos aprobados por HABE para el abono de las matrículas y gastos de gestión de los alumnos acogidos al convenio.

Ikasle guztien aukera-eskubidea bermatzeko asmoz, HABEk urtero ikastaro mota bakoitzaren prezio publikoak ezartzen ditu agindu baten bidez. Agindu horretan HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikula eta kudeaketa gastuengatiko prezio publikoen tarifak zehazten dira. Udalak HABEk ezarritako ordainketa epeen arabera dagozkion ordainagiriak sortu behar ditu eta HABEra bidali ordainketa egin dezaten.

Con el fin de garantizar el derecho de opción de todos los alumnos, HABE establece anualmente mediante Orden los precios públicos de cada tipo de curso. En dicha Orden se determinan las tarifas de los precios públicos por gastos de matrícula y gestión del alumnado sujeto al convenio de HABE. El Ayuntamiento deberá generar las facturas correspondientes según los plazos de pago establecidos por HABE y remitirlas a HABE para su abono.

3.7. HABE eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetza hitzarmenaren ondorioz, C1C1 helburu duten 16-18 urtek ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:

- Matrikulazio epean: 0,20 euro orduko (ikasleak ordainduko ditu)

- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEk ordainduko du)

3.7. Como consecuencia del convenio de colaboración entre HABE y Aitzol Euskaltegia, en el proceso de subvencionar a los alumnos de entre 16-18 años con objetivo C1C1, los plazos de abono de los precios públicos son los siguientes:

- Durante el periodo de matriculación: 0,20 euros / hora (los pagará el/la alumno/a)

- El resto: en las condiciones que aparecen en el convenio, siempre y cuando antes del 30 de junio (lo pagará HABE).

**4. Baja eskatzeko eskubidea:**

Jarraian aipatzen direnei buruzko erabakia alkatea edo zinegotzi delegatuari dagokio, horretarako Euskara Teknikariak proposamena egingo du eta Kontuhartzailetzak dagokion txostena egingo du.

4.1. Nahitaezko arrazoiren* bategatik eraginda ikasleren bat baja izango balitz ikasturtean zehar, bigarren kuota ez ordaintzeko eskubidea izango du, betiere:

- Baja hartu arte %85eko asistentzia bete izan badu.
- Errendimendu egokia izan badu.

Horrelako kasuetan euskaltegiko irakasleak egindako eta euskaltegiko zuzendariak sinatutako txosten baten bidez egiaztatuko da baja den ikasleak %85eko asistentzia eta errendimendu egokia izan duela

**4. Derecho a solicitar la baja:**

La decisión sobre los siguientes extremos corresponderá a la alcaldía o concejalía delegada, a propuesta del/de la Técnico/a de Euskera e informe de Intervención

4.1. Si por causa de fuerza mayor* alguien causara baja durante el curso, tendrá derecho a no abonar la segunda cuota, siempre que:

- haya cumplido el 85 % de asistencia hasta la baja,
- haya tenido un rendimiento adecuado

En estos casos, se acreditará mediante informe del profesor o profesora del Euskaltegi, firmado por el director o directora del Euskaltegi, que la persona que ha causado baja ha tenido una asistencia del 85 % y un rendimiento adecuado.

Inongo kasutan ez da itzuliko kuotaren zenbateko osoaren % 20a.

Matrikula baliogabetzeko eska daiteke eskolako lehenengo bi asteetan, inolako arrazoirik justifikatu gabe. Kasu horietan, ikasleak matrikularen zenbatekoaren % 20 ordaindu beharko du.

En ningún caso se devolverá el 20% del importe total de la cuota.

Se podrá solicitar la anulación de la matrícula durante las dos primeras semanas de clase sin causa justificada. En estos casos, el alumno o alumna deberá abonar el 20% del importe de la matrícula.

Ikasleak baja eskatzen badu, eskolako lehenengo bi aste pasa ondoren, artikulu honetan aurreikusitako arrazoirik gabe, ikasleak kuotaren zenbateko osoa ordaindu beharko du.

**Nahitaezko arrazoiak*:**

- Eskolara joateko ezintasuna, betiere horixe adierazten duen medikuaren egiaztagiria badago.
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), betiere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.

**5.**

Matrikularik ez dute pagatu beharko jarraian aipatutako beste baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek:

a) LANBIDEk emandako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (LAGS/SMI) ziurtagiria izatea.

b) Familia ugariaren txartela eguneraturik edukitzea, matrikulatzen den ikasturtearen matrikula egiteko epealdian edo familia gurasobakar izatea.

c) Diru Sarrerak eta Gizarteratzea Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak eskuratzeko baldintza ekonomikoak betetzea. Kasu honetan, materialaren kopurua ere ez dute ordaindu beharko

Atal honetan jasotakoaz baliatu nahi dutenek Udalean aurkeztu beharko dituzte eskatutako datu eta dokumentu guztiak eta hauek egiaztatzeko egin behar diren azterketa guztiak onartu beharko dituzte.

Datuak eta dokumentuak urteko edozein momentutan azter daitezke.

**6.**

Prezio publikoa ondorengo portzentajean jaitsiko zaie, eskaera egiten dutenei, beti ere Tolosan erroldatuta badaude eta Udalarekin zorrik ez badute, bizikidetza unitatearen ondorengo baldintzak betetzen baditu:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzerako garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduera bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

En el caso de que el alumno o alumna solicite la baja después de transcurridas dos primeras semanas de clase, sin que concurra la causa prevista en este artículo, el alumno o alumna deberá abonar el importe íntegro de la cuota.

**Causas de fuerza mayor*:**

- Imposibilidad de asistir a clase, siempre que exista justificante médico que así lo indique.
- Situación excepcional en el ámbito laboral (traslados, despidos...), siempre que se acredite documentalmente.

**5.**

No tendrán que pagar la matrícula aquellas personas que cumplan alguno de los siguientes requisitos :

a) Disponer del certificado del salario mínimo interprofesional (SMI) emitido por Lanbide.

b) Ostentar la condición de familia numerosa en el plazo de matriculación del curso en el que se matricula o que la familia sea monoparental.

c) Cumplir los requisitos económicos para acceder a los ingresos y a las prestaciones económicas del Sistema Vasco de Garantía de Inclusión Social. En este caso, tampoco tendrán que pagar el material.

Quienes deseen valerse de lo recogido en este apartado deberán presentar en el Ayuntamiento todos los datos y documentos requeridos y aceptar todas las inspecciones necesarias para su comprobación

Los datos y documentos pueden ser analizados en cualquier momento del año.

**6.**

El precio público se reducirá en los siguientes porcentajes a los/las solicitantes, siempre que estén empadronados/as en Tolosa, no tengan deudas con el Ayuntamiento y la unidad convivencial cumpla los siguientes requisitos:

- Patrimonio no superior a 42.900 euros. En la aplicación de esta norma no se tendrán en cuenta los bienes inmuebles de residencia habitual, garajes (hasta un máximo de dos garajes) y el local en el que alguno o alguna de los/las miembros de la unidad familiar ejerza una actividad por cuenta propia.

| **Bizikidetza unitateko kide kopurua /** Número de miembros de la unidad convencional | **0-LGS** | **LGS -1,2 *LGS** | **1,2 *LGS - 1,4 *LGS** | **1,4 *LGS - 1,55 *LGS** |
|---|---|---|---|---|
| 1-2 | %80 | %60 | %50 | %0 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 3 | %90 | %70 | %60 | %25 |
| 4 o más | %95 | %90 | %90 | %60 |

Ataleko prezio publikoen jaitsiera lortzeko, bizikidetza unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

5. eta 6. ataletako jaitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentaje handiena duen jaitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura gehien sortzen dion jaitsiera

Hala ere, hurrengo ikasturteetan baldintza beretan matrikulatu ahal izateko, hau da, 5. eta 6. puntuetako prezio jaitsierak aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

*Aurrez aurreko ikasleak: ikastaroa amaitu eta ikasturtean gutxienik % 85eko asistentzia izatea. Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea. Eskolara joan ez izana zuritzeko, gaixotasun-ziurtagiriak aurkeztea.

* Autoikaskuntzako ikasleak: ikastaroa amaitu eta aurrez aurreko zein autoikaskuntzak dituen ataletan % 85eko parte hartzea izatea . Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea. Ikastaroa bukatu ez izana zuritzeko, gaixotasun-ziurtagiriak aurkeztea.

Baldintza horiek euskaltegiko zuzendariak sinatutako agirien bidez zuritu beharko ditu.

7.- AISA etorkinak euskara hurbiltzeko harrera ikastaroen barruko ikasleek ez dute prezio publikoa ordainduko.

**AZKEN XEDAPENA**

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2024ko irailaren 26an 2024-2025 ikasturterako eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Eranskin honetako aplikazio arauek Osoko Bilkuraren behin betiko onespena jaso zuten 2023ko apirilaren 27an, 2023-2024 ikasturteaz geroztik indarrean daude eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

Para obtener la reducción de los precios públicos deberán presentar la información fiscal de los y las miembros de la unidad convivencial.

Si cumplen los requisitos para acceder a las reducciones de los apartados 5 y 6, se les aplicará la rebaja con mayor porcentaje, es decir, la que mayor beneficio genera al/a la solicitante.

No obstante, para poder matricularse en los cursos siguientes en las mismas condiciones, es decir, para aplicar los descuentos de precios de los puntos 5 y 6, deberán cumplir los siguientes requisitos:

* Alumnado presencial: asistencia mínima del 85 % al finalizar el curso. Realizar todos los exámenes correspondientes a cada nivel y aportar documento favorable sobre el rendimiento, firmado por el profesor o la profesora. Presentar certificados de enfermedad que justifiquen la inasistencia a clase.

* Alumnado de autoaprendizaje: finalizar el curso y participar en el 85 % de las sesiones presenciales y de autoaprendizaje. Realizar todos los exámenes correspondientes a cada nivel y aportar documento favorable sobre el rendimiento, firmado por el profesor o la profesora. Presentar certificados de enfermedad que justifiquen la inasistencia a clase.

El cumplimiento de estos requisitos se justificará mediante certificado de la dirección del Euskaltegi.

7.- El alumnado de los cursos de acogida para el acercamiento del euskera a inmigrantes AISA no abonará el precio público.

**DISPOSICIÓN FINAL**

Las tarifas de este Anexo fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de septiembre de 2024 para el curso 2024-2025 continuando aplicándose en tanto no acuerde su modificación o derogación.

Las normas de aplicación de este anexo fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 27 de abril de 2023, entraron en vigor en el curso 2023-2024 y continuarán en vigor, en tanto no se acuerde su modificación o derogación.

Tolosan, 2024ko abenduaren 31n

ALKATEA　　　KONTU-HARTZAILEA　　　IDAZKARIA

## 3.1.9. ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

### 1.- Aplikazio esparrua

Arautegi hau etxez etxeko laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa, izan beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa edo beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa

### 2.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

Prezio publikoa ordaintzera behartuta daude:

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.

a)Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.

b)Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkatutako pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta ordezkatutako pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.

c)Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularrak ezin badio aurre egin legokiokeen prezio publikoaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz

### 3.- Prezio publikoa

Gehieneko prezio publiko hau aplikatuko zaie erabiltzaileei: 15,00 euro/orduko.

### 4.- Ekarpenen koadroa

Erabiltzailearen ekarpena gehieneko prezio publikoaren portzentaje bat izango da, eta aplikatu beharreko ehuneko hori ahalmen ekonomikoaren araberakoa izango da

Ahalmen ekonomikoa zerbitzuaren erregelamenduak II Eranskinean jarritako irizpideak erabiliz kalkulatuko da.

## 3.1.9. SERVICIO DE ASISTENCIA DOMICILIARIA

### 1.- Ámbito de aplicación

La presente normativa será de aplicación al servicio de asistencia domiciliaria, ya sea en régimen de gestión directa, ya sea mediante convenio con otras instituciones públicas o mediante conciertos, convenios o contratos con otras entidades privadas.

### 2.- Personas obligadas al pago

Están obligadas al pago de los precios públicos:

Las personas físicas beneficiarias directas del servicio de ayuda a domicilio, salvo que concurran las circunstancias b) y c) del presente apartado 1.

a) Si las personas usuarias del servicio son menores de edad, la persona o personas que ejerce/ejercen la patria potestad, tutela o guarda sobre ellas.

b) Las personas adultas que actúen mediante representante legal o guardador/a de hecho en los términos previstos en la normativa de acceso al servicio, si bien, en este caso, el pago se realizará con cargo a la renta y patrimonio de la persona representada, teniendo en cuenta la capacidad económica de la persona representada.

c)Las personas que se hayan visto favorecidas por una o varias transmisiones patrimoniales, realizadas a título gratuito por la persona usuaria, en los cinco años inmediatamente anteriores a la solicitud de acceso al servicio, cuando la persona titular del servicio no pueda hacer frente al pago del precio público que pudiera corresponderle, de acuerdo con lo señalado en el artículo 57.6 de la Ley 12/2008, de Servicios Sociales

### 3.- Precio público

El precio público máximo para aplicar a las personas usuarios será de 15,00 euros/hora.

### 4.- Cuadro de aportaciones

La aportación de la persona usuaria será un porcentaje del precio público máximo, porcentaje a aplicar que dependerá de su capacidad económica.

La capacidad económica se calculará utilizando los criterios establecidos por el reglamento del servicio en el Anexo II.

| Capacidad económica | Precio: % del precio público máximo |
|---|---|
| ≤ 75 % del SMI | 1,5 % |
| >75-78 % | 4 % |
| >78-81 % | 8 % |
| >81-94 % | 15 % |
| >94-110 % | 24 % |
| >110-125 % | 35 % |
| >125-140 % | 48 % |
| >140-155 % | 61 % |
| >155-170 % | 74 % |
| >170-190 % | 87 % |
| >190 % del SMI | 100 % |

**5.-Ondarea zenbatzea**

Familia unitateko kideen arabera, gehieneko ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute

**5.- Cómputo del patrimonio**

Se establecen los siguientes límites patrimoniales máximos en función de los miembros de la unidad familiar.

En caso de que no se superen estos límites, se aplicará la tabla anterior y en caso de superarse estos límites, se abonará el 100 % del precio público

| Kide kopurua | Gehieneko ondarea |
|---|---|
| 1 | 50.000.-€ |
| 2 | 70.000.-€ |
| 3 edo gehiago | 85.000.-€ |

**6.- Libreki erabiltzeko zenbatekoa**

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da LAGSaren % 100i dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetza unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, LAGSaren % 40 gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta LAGSaren % 30 gainerako kideetako bakoitzagatik.

**6.- Cantidad de libre disposición**

El importe de libre disposición será el correspondiente al 100 % del SMI. En el caso de que el número de miembros de la unidad familiar o convivencial sea superior a uno, dicho importe se incrementará en un 40 % del SMI por el/la segundo/a miembro y en un 30 % del SMI por cada uno/una de los/las demás

miembros.

**7.- Kobrantza**

Zerbitzua hilero kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera

Ordaintzeko obligazioa zerbitzua ematen hasten denetik sortzen da.

Ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

**7.- Cobro**

El servicio se cobrará mensualmente en función del servicio prestado

La obligación de pago nace desde el inicio de la prestación del servicio.

La no prestación del servicio por causas no imputables a la persona obligada al pago dará lugar al reintegro de la cantidad correspondiente.

**AZKEN XEDAPENA**

Eranskin honetako aplikazio arauek Osoko Bilkuraren behin betiko onespena jaso zuten 2021eko otsailaren 25ean.

**DISPOSICIÓN FINAL**

Las normas de aplicación de este anexo, fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 25 de febrero de 2021.

Tolosan, 2024ko abenduaren 31n

ALKATEA KONTU-HARTZAILEA IDAZKARIA

## 3.1.10 OROIGARRIAK

**APLIKAZIO ARAUAK:**

1) Tolosako udalak souvenir edo oroigarri gisa, edalontzi eta aterkien salmenta zerbitzua emateko prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu.

2) Ordenantza honetan araututako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude, Tolosako udalak salduko dituen aterki eta edalontziak eskuratzen dituztenak.

3) Ordaindu beharreko kopurua prezio publikoarengatik ondorengoa izango da:

## 3.1.10 SOUVENIRS

**NORMAS DE APLICACIÓN:**

1) El Ayuntamiento de Tolosa establece y exige precios públicos por la prestación del servicio de venta de vasos y paraguas como como souvenir o recordatorio.

2) Están obligados al pago del precio público regulado en esta Ordenanza quienes adquieran los paraguas y vasos que venderán el Ayuntamiento de Tolosa.

3) La cantidad a pagar por precio público será

ERANSKINA / ANEXO

| **PRODUKTUA /** Producto | **PREZIO PUBLIKOA (BEZa barne)/ Precio público (IVA incluido)** |
|---|---|
| Edalontzia/ Vaso | 9 € |
| Aterkia/Paraguas | 21 € |

Tolosan, 2024ko abenduaren 31n

ALKATEA KONTU-HARTZAILEA IDAZKARIA

## 3.1.11 GAZTE IKASTAROAK

### APLIKAZIO ARAUAK

1.- Tolosako Udalak hainbat Gazte Ikastaro antolatzen ditu 16-35 urte bitarteko gazteentzat.

2.- Izen emate epea martxan jartzen da, eta leku kopurua baino izen emate eskaera gehiago baleude, zozketa bidez esleitzen dira plazak.

3.- Ordainketa epea urriaren 1etik 30 bitarte izango da.

4.- Ordainketa guztiak helbideratuta egongo dira.

5.- Behin ikastaroa hasita, ez da bajarik onartu eta ez da dirurik itzuliko.

6.- Ordaindu beharreko kopurua:

## 3.1.11 CURSOS JUVENILES

### NORMAS DE APLICACIÓN

1.- El Ayuntamiento de Tolosa organiza diversos Cursos Juveniles para jóvenes de 16 a 35 años.

2.- Se pone en marcha el plazo de inscripción y si hay más solicitudes de inscripción que plazas se adjudican por sorteo.

3.- El plazo de pago será del 1 al 30 de octubre.

4.- Todos los pagos deberán estar domiciliados.

5.- Una vez iniciado el curso, no se aceptarán bajas ni se devolverán cantidades.

6.- Cantidad a abonar:

ERANSKINA / ANEXO

| | |
|---|---|
| Ikastaroko/ Por curso | 20 € |

### AZKEN XEDAPENA

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2024ko maiatzaren 30 2024-2025 ikasturterako eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Eranskin honetako aplikazio arauek Osoko Bilkuraren behin betiko onespena jaso zuten 2024ko maiatzaren 30, 2024-2025 ikasturteaz geroztik indarrean daude eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte..

### DISPOSICIÓN FINAL

Las tarifas de este Anexo fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 30 de mayo de 2024 para el curso 2024-2025 continuando aplicándose en tanto no acuerde su modificación o derogación.

Las normas de aplicación de este anexo fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 30 de mayo de 2024, entraron en vigor en el curso 2024-2025 y continuarán en vigor, en tanto no se acuerde su modificación o derogación.

Tolosan, 2024ko abenduaren 31n

ALKATEA KONTU-HARTZAILEA IDAZKARIA

## 3.1.12. AUZOLANDEGIAK

### APLIKAZIO ARAUAK

1.- Auzolandegi itxiak 15 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude, eta aste bateko iraupena duen egonaldia eskaintzen da.

2.- Izen emate epea martxan jartzen da, eta leku kopurua baino izen emate eskaera gehiago baleude, zozketa bidez esleitzen dira plazak.

3.- Ordainketa epea ekainaren 17tik 28 bitarte izango da.

4.- Ordainketa guztiak helbideratuta egongo dira.

5.- Behin auzolandegia hasita, ez da bajarik onartu eta ez da dirurik itzuliko.

6.- Ordaindu beharreko kopurua:

## 3.1.12. CAMPOS DE TRABAJO

### NORMAS DE APLICACIÓN

1.- Los campos de trabajo cerrados están dirigidos a jóvenes de entre 15 y 18 años y se ofrece una estancia de una semana de duración.

2.- Se pone en marcha el plazo de inscripción y si hay más solicitudes de inscripción que plazas se adjudican por sorteo.

3.- El plazo de pago será del 17 al 28 de junio

4.- Todos los pagos estarán domiciliados.

5.- Una vez iniciado el campo de trabajo, no se aceptarán bajas ni se procederá a la devolución de cantidades.

6. Cantidad a abonar

ERANSKINA / ANEXO

| | |
|---|---|
| Auzolandegia / Campos de trabajo | 120 € |

### AZKEN XEDAPENA

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2024ko maiatzaren 30 2024-2025 ikasturterako eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Eranskin honetako aplikazio arauek Osoko Bilkuraren behin betiko onespena jaso zuten 2024ko maiatzaren 30, 2024-2025 ikasturteaz geroztik indarrean daude eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte..

### DISPOSICIÓN FINAL

Las tarifas de este Anexo fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 30 de mayo de 2024 para el curso 2024-2025 continuando aplicándose en tanto no acuerde su modificación o derogación.

Las normas de aplicación de este anexo fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 30 de mayo de 2024, entraron en vigor en el curso 2024-2025 y continuarán en vigor, en tanto no se acuerde su modificación o derogación.

Tolosan, 2024ko abenduaren 31n

ALKATEA KONTU-HARTZAILEA IDAZKARIA

## 3.1.13 JABETZA ESKOLA

## 3.1.13 ESCUELA DE EMPODERAMIENTO

ERANSKINA / ANEXO

| JARDUERA-ILDOAK | LÍNEAS DE ACTUACIÓN | TARIFA 2024 |
|---|---|---|
| Arte bidezko adierazpena eta sormena | Expresión artística y creatividad | 0,90€ orduko |
| Auto-zaintza eta osasuna | Autocuidado y salud | 0,90€ orduko |
| Komunikazioa | Comunicación | 0,90€ orduko |
| Aldarrikapen feministak | Reivindicaciones feministas | 0,90€ orduko |
| Identitatea eta subjektibotasuna | Identidad y subjetividad | 0,90€ orduko |
| Kulturartekotasuna | Interculturalidad | 0,90€ orduko |

## APLIKAZIO ARAUAK

**1.- Aplikazio eremua.**

Tolosako Udalak maila pertsonalean zein kolektiboan, emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoa indartzeko eta gizarte bidezkoagoa lortzeko jarduerak antolatzen ditu.

**2.- Izen emate prozesua.**

2.1. Bi denboraldi bereizten dira jabetza eskolan, udazkena-negua eta udaberria. Denboraldi bakoitza hastean, ikastaroetan izena emateko prozedura, eta epealdia Udalaren web orrian argitaratuko dira.

2.2. Izen ematea Internet bidez honako helbidean:

udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jabetze-eskola

Matrikulazioarekin zailtasunak dituzten pertsonak Andragorara hurbil daitezke eta beharrezko laguntza jasoko dute

2.3. Izen ematea, jarduera hasi baino bi egun lehenago arte egingo da.

2.4. Ikastaroetako eta lantegietako plazak iristeko hurrenkeraren arabera banatuko dira.

2.5. Denboraldi bakoitzean errepikakorrak diren jardueretan, aldez aurretik parte ez duten pertsonek izango dute lehentasuna.

## NORMAS DE APLICACIÓN

**1.- Ámbito de aplicación.**

El Ayuntamiento de Tolosa, tanto a nivel personal como colectivo, organiza actividades para fortalecer el empoderamiento y la participación sociopolítica de las mujeres y lograr una sociedad más justa.

**2.- Proceso de inscripción.**

2.1. Se distinguen dos periodos en la escuela, otoño-invierno y primavera. Al inicio de cada temporada se publicará en la página web del Ayuntamiento el procedimiento de inscripción a los cursos y el periodo.

2.2. Inscripción por Internet en:

udala.tolosa.eus/es/servicios/igualdad/programas-y-proyectos/escuela-empoderamiento

Las personas que tengan dificultades con la matriculación pueden acercarse a Andrágora y recibirán la ayuda necesaria

2.3. La inscripción se realizará hasta dos días antes del inicio de la actividad.

2.4. Las plazas de los cursos y talleres se distribuirán por orden de acceso.

2.5. En las actividades repetitivas en cada temporada tendrán prioridad las personas que no hayan participado previamente.

**3.- Ordainketa**

3.1. Izen emateak balio izateko, ikastaroetan tokia lortu duten pertsonek ikastaroaren prezioa ordaindu beharko dute.

3.2. Ordainketa epemuga ikastaroa hasi baino bi egun lehenago izango da.

3.3. Epe hori igaro ondoren ez bada ordainketarik egin, baja emango zaio eskaera horri eta tokia libre geratuko da. Itxaron zerrenda dauden kasuetan, hurrengo pertsonak hartuko du toki hori.

**4.- Prezio jaitsiera**

4.1. Eskaera egiten dutenei, Gizarteratzeko eta Dirusarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, %100 murriztuko zaie prezio publikoa.

**5.- Matrikula bertan behera uztea eta matrikula etetea**

5.1. Matrikulan ordaindutakoa ez da inondik eta inora itzuliko, baldin eta matrikula bertan behera uzteko eskaera ez bada egiten gutxienez ikastaroa hasi baino 7 egun natural lehenago.

5.2. Izena eman dutenek ikastarora bertaratu ezinean, jarduera hasi baino lehen baja eman behar da e-mailez. Hala, beste batzuek hartu ahalko dute lekua.

5.3. Irakaslea aldatu dela-eta ez da matrikularen dirua itzuliko.

5.4. Ezinbestean ikastaroren bat eteten bada, bilatuko da hura nola berreskuratu. Ez bada egiten, dirua itzuliko da.

5.5. Ikastaroak egin ahal izateko, baliozko izen-emateen kopuru bat izan beharko dute gutxienez, ikastaroa hasi baino hiru egun lehenago. Kopuru hori aldatu ahal izango da ikastaro-motaren arabera. Gutxieneko pertsona-kopurua egongo ez balitz ikastaroa egiteko, bertan behera geratuko litzateke , eta dirua itzuliko litzaieke izena eman dutenei.

5.6. Eskolen kalitatea zaintzeko, gehienera egon daitekeen parte hartzaile kopurua finkatuko da, ikastaroaren gaiaren arabera.

**3.- Pago**

3.1. Para que la inscripción sea válida, las personas que hayan obtenido plaza en los cursos deberán abonar el precio del curso.

3.2. El pago se realizará con dos días de antelación al inicio del curso.

3.3. Transcurrido dicho plazo sin que se haya efectuado el pago igualse procederá a dar de baja dicha solicitud, quedando expedita la plaza. En los casos en los que exista lista de espera, la siguiente persona ocupará el lugar.

**4.- Bajada de precio**

